

Otsalarren olerkiak berrargitaratuak



Juan San Martín 'Otsalar'-en poesia lanen bilduma honetan herri-moldean eraikitako olerkiak dira ederrenak

Andolin Eguzkitza

Ezaguna da eta ez du merezi errepikatzeko literaturaren bilakabidean belaunaldiak eta taldeek garrantzi handia daukatela. Belaunaldi berriek sarri askotan aurrekoaren «hiltzeaz» heltzen direla hasieran gailurrera, beranduago, helduaroan, aurrekoek sorturiko eta ekarritako guztia balioztatzen hasiko badira ere, eta euren gan eduki duten eragina ontzat jotzen.

Eta euskal literatura ez da besteak ez bezalakoa. Hain zuzen ere, aspaldi honetan, lehenago eman ez den begirada sakona hasi zaio ematen gerrosteko literaturari, hau da, Gabriel Aresti, Txiki

Ezelan ere makaltzat ezin jo daitekeen obra da Otsalarrena, eta gure arteko hainbat olerkarik oraino gainditu ez duena

Poesia: Giro Gori

Juan San Martín

EHU, 1998

325 orrialde

2.500 pta. (100 libera)

llardegi eta Jon Miranderen aurretik idatzitako literaturari: erbestean eta atzerrian egindako ahaleginari alde batetik (*Gernika* aldizkaria, Orixe, Ibiñaga-beitia, Irazusta, Zaitegi eta *Euzko Gogoa* aldizkaria...), baina, era berean, Euskal Herrian bertan egindako eginaharari, bestetik, alegia, *Egan* aldizkariak, Etxaidek, Erkiagak, *Oleri* aldizkariak eta ondokoek egindakoari erreparatu. Horregatik da hain eskertzekoa Euskal Herriko Unibertsitateak ateratzen duen *Gaur Egungo Euskal Poesia* izena daukan bilduma elebidunean, gure belaunaldikoentzat, eta are gehiago gazteagoak diren irakurleentzat, hain ezaguna ez zaigun Otsalar olerkariaren lanak berrargitaratzea.

Inoiz edo behin irakurrita neuzkan hor-hemenka Juan San Martinen zenbait poema —bera baita Otsalar—, baina inoiz ez nengoen orain bezala guztiak batera irakurtzeko aukeran egon, eta beharbada liburuan agertzen diren azkenengo olerkien ostean, 1977an, poesia idazteari, edota argitaratzeari behintzat utzi dionez gero, oso zaila egiten zitzaidan olerkaritzari buruz hainbeste idatzitako eibartar poligrafoa poeta bezala irudikatzea.

Ondo zenbait badut, 81 poema bildu ditu *Giro gori* / *Tiempo ardiente* deritzon liburuak, ezelan ere makaltzat ezin jo daitekeen obra eta gure arteko hainbat olerkarik oraindik ere gainditu ez dutena, eta halaz ere orain arte hain ahantzia egon dena.

Oso da interesgarria Otsalarren poemak begiratzea, ederto ikusten delako denok dakiguna, gurasoen seme-alabok garelara, eta San Martinen olerkari-tza irakurtzean argi eta garbi ikusten da gerraurreko olerkariak dauzkala buruan, Lizardi, Lauaxeta eta enparauak, baina Arestik iraultza eginen duelarik, berak ere herri-literaturaren elementu, molde eta erak sartzen dituela barra-barra bere lanetan. Izan ere, bilduman

San Martinen olerkaritza irakurtzean argi eta garbi ikusten da gerraurreko olerkariak dauzkala buruan

agertzen diren poema ederrenetariko batzuk herri-moldean onduriko batzuk dira, hala nola *Euskaldun bizi nahia* (1963) horretako ondoko ahapaldia: *Oinaz ta Ganboarren gorroto legean / guziok hemen gabiltz auzitza tristeaz; / kezka baten anaiak izan beharrean, / buruz jokatzu denok ideia batean, / garaiz oriturikan sorterri maitean.*

Gaien ikuspegitik ere garaikoetan aritzen da San Martín, existentzialismoa alde batetik, aurreko horretan bezala herrimina, eta olerkaritzaren betiereko gaiak, natura eta amodioa, bestetik. Hizkuntzaren moldeetan jartzen badugu begirada baina, kronologikoki dago-kion tokia hartu, eta gure literaturaren historian katanbegi bat osatzen lagundu zuela argi eta garbi dago; hasi erabat lizarditarra den hizkuntza, hiztegiz aberats, baina gramatikalki oraino elbarritua ematen duenaz hasten baita, hizkuntza herritar gozo eta adierazkorra sartzen duelako gero, azkenez gure oraingo poesia eta prosaren oinarri den hizkera fresko eta zalua erabiltzeko: *Maitatzeko arrazoiak / galdu ziren munduan, / gizonak uztarpeturik / beti sufri-menduan.*

Liburuari amaiera, Juan San Martinek idatzitako poesiari buruzko artikulua saldo batek ematen dio alde batetik, eta bestetik Mikel Zarate zenak *Otsalarren mozorroak* izeneko artikuluekin batera (San Martinen *Miraria* deritzon poemaren azterketa estilistikoa dena) San Martinen bibliografiak gero. Benetan interesgarria egindakoa, eta bai egileari berari, eta bai bildumaren apailatzaileei zorionak emateko modukoa. Itzulpenaren sailean aurkitu dut bakarrik beharrezkoak ez ziren erratuen erasoak, hala nola «berdin» «bera» nahastatzeko joeran eta adjektibo batzuk izenaren aurrean jartzeko orduan, erraz edozelan ere konpon daitezkeen errakuntzak.

Europako Batasunaren gainean gogoeta proposatzen dute Gaiak Mintegiko kideek



Saiakera: **Europako Batasuna XXI. mendean Gaiak Mintegia**
Gaiak, 2000
185 orrialde
2.100 pta. (84 libera)

XXI. mendea euroari buruz hizketan hasi zitzaigun, eta guztiok dakigu jada Europako Batasunaren barruan egoteak ondorio nabarmenak dituela. Liburu honetan, Europa batu bat eraikitzeko egindako urratsak aztertzen dituzte Iñaki Gonzalez Garaik, Xabier Albizuk eta Joseba Etxeberriak —Gaiak Mintegiko kideak hirurak—. Kultura eta hizkuntza gutxituei antolaketak politiko horretan sortzen zaizkion arazoak dituzte aipagai bereziki, Europa berdea, urdina, ingurumena, egitura politiko eta militarrek, moneta eta kanpo harremanak ardatz hartuta.

Xabier Diharce 'Iratzeder'-en bi atzezlan eta zenbait testu bildu dituzte liburu honetan



Antzerkia: **Biziaren airaldia Xabier Diharce, 'Iratzeder'**
Gero, 2000
105 orrialde
1.100 pta. (44 libera)

Iratzeder (1920) lohitzundarra idazle eta fededun fina da, eta liburu honetan bildu dituzten testuak horren adierazle dira. Hamalau lan labur dira liburuko lehen partean, erlijioari lotuak gehienak —apaiza dugu Xabier Diharce—. Ondoren, bi atzezlan aurkituko ditu irakurleak. *Nere etxean hiru sorgin* da lehena, bertsoz eta partituraz jantzia, eta alferkeria, zikoizkeria eta harrokeria ordezkatzeko dituzten hiru sorginek etxalde batean eragiten duten nahastea agertzen du. *Harrapalau* da bigarren atzezlan, eta zorrak kitatu ezinda dabilta bertako protagonistak.

Ludwig Wittgensteinen etika, zientzia eta antropologia arloko ekarpenak hizpide



Saiakera: **Etika, zientzia eta antropologia Ludwig Wittgenstein**
Itzulpena: **Ignazio Riestaran**
Jakin, 2000
100 orrialde
1.200 pta. (48 libera)

Ludwig Wittgenstein (1889-1951) Vienan jaio zen, erdi-katoliko, erdi-judu. Erresuma Batuan ikasi zuen filosofia, eta I. Mundu Gerran soldadu zegoela, *Tractatus Logico-Philosophicus* idatzi zuen. Austria nazitik ihes egin, zientziak eta industriak gerra erabakitzen dutela uste zuen. Gizakien bizitzan garrantzitsuena aurrerapen teknozientifikoa ez dela ere pentsatu zuen, eta mistikotasuna, etikaren, estetikaren eta errito antropologikoen garrantzia aldarrikatu.